

PRESIDENTEA

Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko AZAROAREN 3an EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria

Esteban Hernando

Aitziber Alava

Garbiñe Alaña

Julio Etxaurren

Esmeralda Martínez

José Antonio Bartolomé

Iratxe Parro

Iraida Saenz de Lafuente

José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko azaroaren hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udalbatzara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko irailaren 18an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du Galde-eskeen atalean ez dela jaso berak egindako ohar bat; zehazki, Etxaurren Ikastolara garraiatuak izateko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskubiderik jaso ez duten umeen jantokia diruz laguntzeko eskatu zuen.

Idazkariak esan du gehitu egingo duela.

José Luis jaunak (PP) esan du abstenitu egingo dela, bera ez zelako osoko bilkuran egon.

Besterik gabe, bozketa egin dute eta bertaratutako gainerako zinegotziek puntua onetsi dute.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Buru-gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzaz hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Irabazi-asmorik gabeko Asasam Elkartek Aiara eskualdean egiten duen lanean laguntzeko eta lan hori sustatzeko Udalak duen interesa. Gainera, udalerriko zenbait pertsona dira lan horren onuradun.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta ASASAM Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, elkarte horren urteko jarduerak eragiten dituen gastuen zati bat diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa eta Langileak Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2014ko urriaren 14an egindako bileraren ondoren.

AINTZAT HARTU DA.- 2014ko aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dagoela.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Buru-gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko lankidetzeta-hitzarmena, 2014. urteko jarduerak eragindako gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea ASASAMi. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko zaizkio jakinarazpenari, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezaten.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxearen arteko lankidetzeta-hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxeak bere zentroan hartutako neska ikasleekin egiten duen eginkizun soziala eta Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzeta-hitzarmena, hain zuzen ere, aipatu zentroak bere neska ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa eta Langileak Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2014ko urriaren 14an emandakoa.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzeta hitzarmena, hain zuzen ere, 2014. urtean aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Amor Misericordioso ikastetxeari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Menagarai eta Beotegi herrietako kale-izendegiaren aldaketa.

José Antonio jaunak (EAJ) galdetu du ea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzari helarazi zaion behin betiko kale-izendegia, eta ea horri buruzko ezer esan badute.

Idazkariak adierazi du 2014ko urriaren 6an eman zitzaizela horren berri eta ez dutela ezer esan.

Horren inguruko beste ezer aipatu ez denez, gaiari buruzko bozketa egin eta aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Beharrezkoa da Menagarai eta Beotegi herrietako kale-izendegia aldatzea, auzoen banaketari eta etxeen zenbakiei dagokienez.

IKUSI DA.- 2012ko urrian aipatutako kale-izendegia eguneratzeko lana agindu zitzaion Aialur, SL enpresari.

IKUSI DA.- Aialur, SL enpresak aurkeztutako proposamena Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzari igorri zitzaion, aztertu eta alegazioak egin zitzaion.

IKUSI DIRA.- F. M. M. jaunak toponimiari buruz emandako gomendioak.

AINTZAT HARTU DA.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzak 2013ko azaroaren 11n aurkeztutako alegazio guztiak aintzat hartu ziren, auzo batzuk “baserria” izendatzea eskatzen zutenak izan ezik. Izan ere, izendapen horrek arazoak eragiten ditu eroldako eta INEren informatika-programetan, eta toponimia-gaietako aholkulariak ere ez du erabilera hori gomendatzen.

IKUSI DA.- 2014ko urriaren 6an helarazi zitzaion Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzara auzoen izendapenak eta etxeen zenbakiak jasotzen dituen behin betiko planoak, ezagutzean eta zegozkion ondoretarako.

AINTZAT HARTU DA.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzak ez du jakinarazitako dokumentazioaren aurkako ezer adierazi.

AINTZAT HARTU DA.- Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2014ko urriaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Menagarai eta Beotegi herrietako auzoen banaketa eta etxeen zenbakiak, bat etorri Aialur, SL enpresak 2014an aurkeztutako planoekin.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzari. Halaber, azaltzea ebazpenaren aurka berrezartze-helegitea aurkez daitekeela Udalean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegian.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurkako errekurtsorik jartzen ez bada, kale-izendegi berria helaraziko zaie Ertzaintzari, Suhiltzaileen Partzuergoari, Gurutze Gorriari eta Posta Zerbitzuari, ezagutzean.

5.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena (2014).

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Aiarako Udalak musika eta musikaren erabilera sustatu nahi ditu esparru guztietan. Halaber, ikusi da Eskutxiko Ahotsak elkarteak hori sustatu nahi duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, musika sustatzeko egiten diren ekimen eta jardueren sustapena bultzatzeko.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2014ko urriaren 21ean emaniko aldeko ebazpena.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, urteko jarduerak eta jarduera martxan egoteak eragiten dituen gastuak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eskutxiko Ahotsak Elkarteari. Hitzarmenaren bikoopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Amigos de Etxaurren – Etxaurreneko Lagunak Elkarteak kultur elkartearen arteko lankidetzahitzarmena (2014).

Iratxe andreak (AB) esan du ea Etxaurreneko Lagunak kultur elkartearen hitzarmena ezagutzen duten. Onetsi aurretik helarazi behar zitzaie; izan ere, onesten den lehenengo aldia da.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du bera ez dela eurekin harremanetan jarri.

Hori dela eta, azkenean ez da gaiari buruzko bozketarik egin. Mahaiaren gainean utzi da, hitzarmenaren zirriborroa helarazten zaien arte.

7.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren ESEP 2014-17 plan estrategikoa (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana).

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Euskara eta Hezkuntza Batzordeak 2014-10-21ean egindako bilkuran azaldu zen Aiarako Udalaren ESEP 2014-17 plan estrategikoaren proposamena (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana). Ondoren, udalbatza osoak aho batez onetsi zuen.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren ESEP 2014-17 plan estrategikoa (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana).

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari.

8.- Berrestea 277/2014-B AAEan bertaratzeari buruzko Alkatetza Dekretua. Estatuko abokatuak - Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritzak aurkeztu du, Udalaren jarduera honen aurka: presoak Euskal Herrira itzultzeko eskatzen duen kartel bat jartzea.

Horri dagokionez, Josu jaunak (BILDU) azaldu du udalbatza osoak orain dela hamabi bat urte emandako ebazpena aurkitu dela. Kartela jartzeari dagokio eta epaitegira igorri da.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- 2014ko irailaren 30eko 401/14 Alkatetza Dekretua, ebatzi egiten duena demandatu gisa bertaratzea 277/2014-B zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan.

Udalbatzak, aho batez, ERABAKI DU:

Berrestea irailaren 30eko 401/14 Alkatetza Dekretua, ebatzi egiten duena 277/2014-B zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan demandatu gisa bertaratzea. Estatuko abokatuak - Gobernuaren Euskadiko Ordezkaritzak aurkeztu du, Udalaren jarduera honen aurka: presoak Euskal Herrira itzultzeko eskatzen duen kartel bat jartzea.

Halaber, aipatutako Dekretuaren bidez ebatzi zen Udalaren ordezkaritza Ekain aholkularitza juridikoko zenbait prokuradoreren eta abokaturen esku uztea, eta administrazio-espeditatea Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko 1. Epaitegira igortzea.

➤ Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du honako puntu hau premiaz Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo sartzea:

Josu jaunak (BILDU) azaldu du Los Arcos de Quejanako Plen Bereziari dagokiola. Plan hori gaitzestea proposatu du, udal-teknikariak igorritako txostena eta Hirigintza Batzordeak aurrekoan egindako bilkuran azaldutakoa aintzat hartuta.

Eztabaidatzen hasi aurretik, Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo eta premiaz sartzeko bozketa egin da.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du bere taldeak ez duela premiazkotasuna onetsiko, uste dutelako gaiak dagokion bezala batzorde batean lantzeko behar besteko garrantzia duela uste dutelako.

Iratxe andreak (AB) esan du bere taldeak ere premiazkotasuna gaitzetsiko duela, Batzordearen bilkuran ez zelako Alorreko Plana gaitzesteaz hitz egin: zuzenketa egiteko eskatu zitzaion.

Beraz, premiazkotasuna ez denez onetsi, puntua ez da sartu Eguneko Aztergaien Zerrendan.

➤ Alkateak proposatu du honako puntu hau premiaz Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo sartzea: Aiarako Udalaren eta Luiaondoko Pilota Klubaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea. Premiazkotasuna justifikatzeko, hitzarmenaren indarraldiak alaitzen arinen hasi behar duela azaldu du; bestela, lehenengo hiruhilekoa amaituko da, sinatuta egon gabe.

Aldeko botoak: 9 (4 BILDU, 4 EAJ, 1 PP)

Aurkako botoak: 2 (AB)

Beraz, onetsi egin da Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo premiaz sartzeari, eta 9. puntua izango da.

9.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Luiaondoko Pilota Klubaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

Iratxe andreak (AB) esan du klausuletako batean jaso egin dela erabiltzaile bakoitzak gutxienez 90 euroko kuota ordaindu beharko duela. Uste du ez dela egokia hori jasotzea.

Idazkariak erantzun du klausula hori jaso duela, Klubak emandako datuen arabera, bermatzeko Udalak ez dituela 2.076 euro baino gehiago ordainduko. Bada, zenbateko horrekin, kuota gehituta, monitorearen kostua ordaintzen da.

Iraida andreak (AB) galdetu egin du, haurren batek ikasturte erdian jarduera uzten badu eta bigarren kuota ordaintzen ez badu, ea nork egingo dion aurre alde horri. Uste du Udalak egin beharko liokeela aurre, eskaintzen dituen gainerako ikastaroetan bezala.

Josu jaunak (BILDU) esan du hitzarmenean jaso dena eurekin adostutakoa dela, eta eurak ados zeudela. Udalak hitzematzen du gehienez ere 2.076 euro ordainduko dituela.

Gaiari buruz ez denez beste ezer esan, gaiari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 9 (4 BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 PP)

Aurkako botoak: 2 (AB)

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Luiaondoko Pilota Klubaren eskaera eta Udalak tokiko kirol hori udalerriko haurren artean gordetzeko eta sustatzeko duen interes publikoa, Pilota Eskolaren kudeaketaren bidez.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Luiaondoko Pilota Klubaren arteko lankidetzaren hitzarmena, pilota-eskolaren gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- 2014ko aurrekontuan hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditu egokia dago.

Korporazioak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Luiaondoko Pilota Klubaren arteko lankidetzaren hitzarmena, pilota-eskolaren 2014-2015 ikasturteko gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Luiaondoko Pilota Klubari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko zaizkio jakinarazpenari, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezaten.

➤ **Eguneko Aztergaien Zerrendako gaiekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du honako puntu hau premiaz Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo**

sartzea: bertan behera uztea Udalak Arabako Foru Aldundiaren erosketa-sistema zentralizatuarekin bat egiteko ebazpena.

Puntua premiaz sartzeari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 10 (4 BILDU, 4 EAJ-PNV, 2 PP)
- Abstentzioak: 1 PP

Beraz, puntu hori premiaz sartzea onetsi da, eta 10. puntua izango da.

10.- Indarririk gabe uztea Udalbatza Osoaren 2014ko apirilaren 16ko ebazpena, onetsi egiten duena bat egitea Arabako Foru Kontratazioaren bidez erosketa-sistema zentralizatuarekin bat egitea.

Josu jaunak (BILDU) esan du Arabako Batzar Nagusietan erosketa-zentral horri buruzko zuzenketa transakzionala onetsi dela, eta zalantzan jartzen du; beraz, uste du bidezkoa dela ebazpena bertan behera uztea.

José Antonio jaunak (EAJ) adierazi du bere taldea ebazpena indarririk gabe uztearekin ados dagoela, gaia Batzar Nagusietan ebazten den arte; hots, guztia argitu arte. Baina, etorkizunean ikusi egiten bada erosketa-zentral hori posible dela eta Udalarentzat onuragarria izan daitekeela, bat egitea ebatzi beharko da berriz ere.

Iraida andreak (AB) esan du ebazpen-proposamenean falta egiten dela indarririk gabe uzteko motibazio labur bat, hizpide izandako zuzenketa hori aipatuz.

Idazkariak esan du ez duela sartu, ez delako motibazio juridikoa; baina, nahi izanez gero, aintzateste bat jasoko da, zuzenketari erreferentzia eginez.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 10 (4 BILDU, 4 EAJ-PNV, 2 PP)
- Abstentzioak: 1 PP

Eta hori dela bide

IKUSI DA.- Udalbatza Osoak 2014ko apirilaren 16an emandako ebazpenaren bidez onetsi zen Arabako Foru Aldundiaren erosketa-sistema zentralizatuarekin bat egitea, zehaztutako ondasun, zerbitzu edo hornidurak kontratatzeke, Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren bidez (Diputatuen Batzarraren martxoaren 11ko 12/2014 Foru Dekretuaren bidez sortu zen).

AINTZAT HARTU DA.- 2014ko apirilaren 16an Arabako Batzar Nagusietan onetsi zuten Ezker Batua-Berdeak, Euskal Sozialistak, EH Bildu, EAJ-PNV eta Alderdi Popularra talde batzarkideek zuzenketa transakzional bat onetsi zuten, Arabako Foru Aldundiari eskatzeko foru-arauaren proiektua aurkezteko, Kontratazio Zentralaren osaera eta funtzionamendua araupetze aldera. Xedea zen Batzar Nagusietan eztabaidatzea eta talde batzarkideek egokitzen jotzen dituzten ekarpenak aurkeztu ahal izatea; beraz, egokitzen jo da oraindik Zentral horrekin bat ez egitea, harik eta horren osaera eta funtzionamendua argitzen den arte.

AINTZAT HARTU DA.- Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 105. artikuluan xedatutakoa.

Korporazioaren gehiengo osoak honako hau **ERABAKI DU**:

IKUSI DA.- Indarrik gabe uztea Udalbatza Osoak 2014ko apirilaren 16an emandako ebazpena, onetsi egin zuena Arabako Foru Aldundiaren eresketa-sistema zentralizatuarekin bat egitea, zehaztutako ondasun, zerbitzu edo hornidurak kontratatzeke, Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren bidez.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari. Halaber, azaltzea ebazpenaren aurka berrezartze-helegitea aurkez daitekeela Udalean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez daiteke, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epaitegian.

➤ **Eguneko Aztergaien Zerrendako gaiekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du honako mozio bat premiaz Eguneko Aztergaien Zerrendatik kanpo sartzea. Zehazki, datorren azaroaren 9an Katalunian antolatuko den prozesuari buruzko mozioa da eta BILDU udal-taldeak EAJ-PNVrekin batera aurkeztu duela esan du. Alkate jaunak, premia arrazoitzeko, esan du data hurbil dagoela eta gauzatu aurretik ezin izango dela beste osoko bilkura batean aztertu.**

Premiari buruzko bozketa egin da, eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 10 (4 BILDU, 4 EAJ-PNV, 2 PP)
- Abstentzioak: 1 PP

Ondoren, Josu jaunak (BILDU) mozioa irakurri du:

11.- Kataluniako prozesu soberanistari buruzko mozioa, EH BILDU eta EAJ-PNV udal-taldeek elkarrekin aurkeztutakoa.

EH BILDU eta EAJ-PNV udal taldeek honako puntu hauek aurkezten dizkiote Aiara-Ayalako Udalbatza Osoari, eztabaidatu eta onets ditzan:

- 1. Aiara-Ayalako Udalak ebazten du errespetatu eta aitortu egiten duela Kataluniako Parlamentuak abiarazitako prozesu politiko eta ekonomikoa, herri katalanaren borondatearen adierazpen demokratiko gisa, Kataluniako herritarrek euren etorkizun politiko kolektiboa erabakitzeke eskubidea gauzatzeko.*
- 2. Aiara-Ayalako Udalak aitortzen du herriek zilegitasun demokratikoa dutela euren etorkizun politikoa erabakitzea. Herritarrek adierazten eta demokratikoki erabakitzen dutenak izan behar du muga.*
- 3. Mozio hau igortzea espainiar estatuko gobernuko presidenteari, parlamentuari eta senatuari, Eusko Jaurlaritzako lehendakariari eta Kataluniako Parlamentuari.*

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (4 BILDU, 4 EAJ)
- Abstentzioak: 3 (2 AB, 1 PP)

12.- Alkatetza-dekretuak:

- **Erref.: 368.- MAPC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menagaraiko etxebizitza baten alboan drainatze-sare bat instalatzeko.
- **Erref.- 369/14.- Retes de Llanteno Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno bide batzuk konpontzeko.
- **Erref.- 370/14.- FZG eta MNVG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzeke Kexaa-Quejanako lursail batean.
- **Erref.- 371/14.- ZZG eta MAIS.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzeke Kexaa-Quejanako lursail batean.
- **Erref.- 372/14.- PJAA-** Finka banantzeko lizentziari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 373/14.- MICA.-** Itzultzea Costeran nekazaritza-tresnen biltegi bat eraikitzeke lanen hondakinen kudeaketa bermatzeko aurkeztutako fidantza.
- **Erref.- 374/14.- MDMY.-** Agiri gehiago eskatzea jarduera-/irekitze-lizentziari buruzko espedienteari buruz.
- **Erref.- 375/14.- MBA eta JJPP.-** Agiri gehiago eskatzea jarduera-/irekitze-lizentziari buruzko espedienteari buruz.
- **Erref.: 376/14.- GCA.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako etxebizitza baten lastategia etxebizitza gisa eraberritzeko.
- **Erref.- 377/14.- JCG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Retes de Llanteno dagoen etxebizitzako estalkia eraberritzeko.
- **Erref.- 378/14.- Onestea Enplegu Eskaintza Publikoa.**
- **Erref.- 379/14.- PMD e/r Luiaondoko Padura egoitza-guneko jabekideen komunitatea.-** Gaitzestea martxoko 123/14 Dekretuaren aurka aurkeztutako berrezartze-helegitea.
- **Erref.- 380/14.- XIG.- Diru-laguntza ematea, adingabeen musika- eta dantza-jardueretarako (2014. urtea).**
- **Erref.- 381/14.- LMM.-** Onartzea ordaindutako 2014ko Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren ordainagiriaren zati proportzionala, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 382/14.- GEA funtzionarioari eszedentzia ematea, seme-alabak zaintzeko.**
- **Erref.- 383/14.- Construcciones Arana, SA.-** Esleitzea igerilekuen eremua hobetzeko obra txikiko kontratua.
- **Erref.- 384/14.- Bitarteko funtzionarioa izendatzea, eszedentziagatik ordezkapena egiteko.**
- **Erref.- 385/14.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, eraikuntza-eta eraiste-lanen hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 386/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako Mendibil bidearen zati bat konpontzeko.
- **Erref.- 387/14.- Izoriako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako 5. poligonoko 102. lursailaren sarbidea konpontzeko.
- **Erref.- 388/14.- Autocares Sobrón.-** 2014-2015 ikasturtean eskola-erabilerarako garraio erregularra baimentzea.
- **Erref.- 389/14.- Aiarako Biltokia Kultur Elkartea.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 390/14.- Aiarako Saraube Hockey Kluba.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 391/14.- Argazki Kluba Hontxuria.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 392/14.- Luiaondoko Pilota Kluba.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 939/14.- Garobel Mendi Taldea.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 394/14.- Etxaurren haur-eskola.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 395/14.- Coral Izalde Abesbatza.-** 2013an jarduerak egiteko emandako diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **Erref.- 396/14.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** Onartzea 300/13 Alkatetza Dekretuaren bidez emandako obrarako lizentzia handitzea.
- **Erref.- 397/14.- JMLV.-** Fidantza eskatzea, hondakinak egoki kudeatzeko.
- **Erref.- 398/14.- JBU.-** Lizentzia ematea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko.
- **Erref.- 399/14.- Onestea F/2014/9 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 300/14.- JKGG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuhatzako etxebizitza baten estalkian erreteila egiteko.
- **Erref.- 401/14.-** Gobernuak Euskadin duen Estatuko abokatuaren/Gobernuaren Ordezkaritzaren 277/2014 zenbakiko AAHan bertaratzeari buruzko Dekretua. Presoak Euskal Herrira itzultzeko eskatzen duen kartel bat jartzeko udal-jardueraren aurka aurkeztu zuten.
- **Erref.: 402/14.- ERC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzan kokatutako etxebizitza baten inguruko horma garbitu eta konpontzeko.
- **Erref.- 403/14.- Alkateak kreditua gaitzeko egindako 4/2014 espedientea.**
- **Erref.- 404/14.- Alkateak kreditua gaitzeko egindako 5/2014 espedientea.**
- **Erref.- 405/14.- Naturgas Energía Distribución, SLU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasaren likidazioa (argindarra), 2014ko 3. hiruhilekoa.
- **Erref.- 406/14.- JABP.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako lursail batean dagoen hormako arrakalak konpontzeko.
- **Erref.- 407/14.- JIAM.-** Obrarako hirigintza-lizentzia ematea, Etxegoien dagoen etxebizitzaren erreteila egiteko eta kanpoaldea pintatzeko.
- **Erref.- 408/14.- JZH.- Diru-laguntza ematea, adingabeen musika- eta dantza-jardueretarako (2014. urtea).**
- **Erref.- 409/14.- JMLV.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Beotegin dagoen etxebizitzako estalkia aldatzeko.
- **Erref.- 410/14.- Alkatearen 2/2014 kreditu-transferentzia.**
- **Erref.- 411/14.- Hnas I. V., SC.-** Dokumentazio gehiago eskatzea, “Gaztandegia” jardueraren irekitze-lizentzia emateko.
- **Erref.- 412/14.-** Esleitzea “Euskal Jolas Txokoak” kudeatu eta emateko zerbitzu-kontratua.
- **Erref.- 413/14.- CPE.-** Dokumentazio gehiago aurkeztea, finkak banantzeko edo biltzeko lizentziaren espedientea.
- **Erref.- 414/14.- Fundación Alday.-** Obrarako hirigintza-lizentzia ematea, Arespalditzako zaharren egoitzan mantentze-lanak egiteko eta garajeen atea jartzeko.
- **Erref.- 415/14.- Izoriako Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, hondakinak egoki kudeatzen dituela bermatzeko.
- **Erref.- 416/14.- Talleres Banoa, SL.-** Dokumentazio gehiago eskatzea jarduera hasi aurreko jakinarazpen-espedienteari buruz.
- **Erref.- 417/14.-** Onestea administrari-laguntzaileen lan-poltsan onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

- **Erref.- 418/14.-** Onestea zerbitzuetako langileen lan-poltsan onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.
- **Erref.- 419/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako kaleak egokitzeko.
- **Erref.- 420/14.-** Esleitzea kultura- eta kirol-tailer eta -ikastaro artistikoak emateko zerbitzuen kontratua.
- **Erref.- 421/14.- JBU.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan.
- **Erref.- 422/14.- MCHG.- Barrena kalea, 4 (Luiaondo) helbideko jabekideen komunitatea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen eraikin baten estalkiko tximinia berreraikitzeke.

Garbiñe andreak (EAJ), 378 zenbakiko Dekretua dela eta, galdetu egin du ea begiratu den euskara-agiriak baliozkotzearen kontua.

Idazkariak erantzun du dekretu hori Udalaren barneko LEP bati dagokiola. Euskara-agiria baliozkotzeari dagokionez, esan du begiratu egingo dela; izan ere, oraindik ez da pausu berririk eman espediente horretan, eta oraindik ez dira azterketak egin.

13.- Norberak lekarkeena.

- Garbiñe andreak (EAJ) eskatu du Udalbatza Osoak bozka dezala diru-laguntza bat ematea, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik jaso ez duten haurri, ez dietelako garraio-eskubiderik eman Etxaurren Ikastolara joateko. Hori guztia Amurrioko kiroldegia diruz laguntzeko 5.000 euroko partidaren kargura: ez da exekutatu, urtea amaitzen ari delako.

Batzordeburu jaunak ebazpen-proposamena irakurri du. Laurenek (BILDU) esan du ez dela Udalaren eskumena, ezpada Hezkuntzarena. Ez da logikoa mozketak egoteak ekartzea Udalak ordaindu behar izatea gastu horiek.

Garbiñe andreak (EAJ) adierazi du konpondu beharreko arazoa dela. Arazoa familiek dute ikasturte honetan. Esan du hirugarrenez proposatu dela osoko bilkura batean, baina ez dela erantzunik eman.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du arazoaren irtenbidea ez dela Udalak gastua bere egitea, ezpada Eusko Jaurlaritzak bere egitea. EAJ taldeari eskatu dio Eusko Jaurlaritzari eska diezaiola arazo hori aurkezteko eta gizarte-gastuan mozketarik ez egiteko.

Garbiñe andreak esan du Batzorde batean eskatuko dela.

- Garbiñe andreak eskatu du azalpenak emateko administrazio-batzetara igorritako dekretuari buruz. Udalari kontuen egoera igor dezaten egin zaie eskaera, baina ez da batzordeetan komentatu eta ez da ebatzi eskatzea.

Josu jaunak (BILDU) esan du hori eskatu zitzaizela, kontuak publikoak diren arren, gai sentsiblea zela uste genuelako; beraz, egokiena batzei eskatzea zen.

Garbiñe andreak esan du batzordean esan zela ez zela eskatuko, baina batzei ez zaie beste idazkirik igorri, ez igortzeko esanez.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du adierazi nahi den bakarra dela, ezer eskatu baino lehen, dagokion batzordean adostu behar dela.

- Garbiñe andreak (EAJ) txosten juridiko bat eskatu du, Udalak isurtzeko duen baimenaren eta putzu septikoen kudeaketaren inguruan. Ea nor den arduraduna eta zer egin behar eta eskubide duen putzu septikoen gainean. On da jakitea zein diren Udalaren eskumen eta zein batzen eskumen.
- Garbiñe andreak galdetu egin du ea zertan den Luiaondoko Otazu eta Padura kaleetako araztegien funtzionamendua.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du Padura kalekoa martxan dagoela. Abuztuan arazoren bat egon zen, txosten bat eskatu zitzaion enpresari eta orain ematen du funtzionamendua egokia dela.

Otazu kalean, enpresa eraikitzailea arduratuko da obrez, eta URAk eskatzen dituen parametroetara egokituko da.

- Garbiñe andreak esan du Malato zuhaitzaren monumentuaren inguruak garbitu direla, baina harria ez dela garbitu. Garbitu egingo da?

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du inguruak garbitzeko agindu dela, baina harria garbitzeko enpresa espezializatu bat behar da; izan ere, produktu bereziekin garbitu behar da.

- Garbiñe andreak erantzun du, Etxegoienen putzuari buruzko espedientea dela eta, obra geldiarazteko dekretu bat eman zela. Ondoren, beste dekretu baten bidez geldiarazte hori indargabetu zen. Azken dekretu horrek zer oinarri duen galdetu du.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du azken dekretu horren oinarria Konfederazio Hidrografikoaren txosten bat dela.

Idazkariak azaldu egin du zer gertatu zen espediente horrekin. Esan du Batzordeak salaketa bat jarri zuela eta udal-teknikariak azaldu zuela 7 metrora egiten ari zirela, ez 15 metrora, azken hori izanik Konfederazioaren baimenak ezarritako distantzia. Bada, obra geldiarazteko dekretu bat egin zen orduan. Horrez gain, jakinarazpen bat igorri zitzaion Konfederazioari eta URARI, gertatzen ari zena ohartarazteko.

Konfederazioko teknikariak obran bertaratu ziren eta, azkenean, txosten bat igorri zuten, obra eurek eskatukora egokitzen zela esanez. Txosten hori ikusita, geldiaraztea indarrrik gabe uztea erabaki zen, ikusita URAk, gainera, ez zuela gaiari buruz ezer esan eta informaziorik eman.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du eurek ez dutela egoki ikusten obra geldiarazteko udal-teknikari baten txostena egon arren, ondoren geldiarazte hori indargabetzeko beste txosten bat egin ez izana.

Josu jaunak (BILDU) esna du egin beharrekotzat jo zena egin zela. Ez zitzaigun egoki iruditzen obra geldiaraztea, aintzat hartuta Konfederazioak (hots, baimenak emateko eta distantziak ezartzeko eskumena duenak) ez zuela arazorik ikusten.

Garbiñe andreak esan du guztiek egon behar badute txosten teknikoaren zain, ez dela ulertzen nola egin zen geldiaraztea indargabetzeko dekretua, txosten tekniko hori gabe.

Josu jaunak esan du dekretuaren oinarrian ez zegoela udal-txosten teknikoa, ezpada Konfederazioaren txostena.

Garbiñe andreak espedientearen inguruan aparejadoreak egindako txostena eskatu du.

Josu jaunak erantzun dio ez dagoela arazorik eta eskatuko dutela txostena.

- Garbiñe andreak esan du Costerak puzgarri bat eskatu zuela, baina ukatu egin zitzaion eta bat eskatu behar izan zuen. Egin beharrekoa Batzordean erabakitzekeo eskatu du.
- Garbiñe andreak esan du Udalak ohe artikulatu bat eta aulki gurpildun bat zeuzkala. Non dauden eta zertarako erabili diren galdetu du.

Idazkariak erantzun dio onena dela dagokion teknikariari galdetzea. Cecilio da.

- Garbiñe andreak aipatu du azken aldian ez dela kale-garbitzaile andrea lanean ikusten.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeita bost zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko azaroaren hiruan.

OE
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.